

LITERATUR BEKAK TXUKUNTZEKO
PROPOSAMEN BATZUK

Pako Aristi, Yolanda Arrieta, Koldo Izagirre
2019, abuztua

Txosten hau hiruron artean landua eta adostua da. Gure erribindikazioen abiaburua izan litekeela uste dugu, baina ez da dokumentu itxia: ondo legoke lankide guztion onespena izatea. Galderak, oharrak, zuzenketak eta iradokizunak espero ditugu, beraz.

Txostenaren antolamendua:

1. Atera ditugun ondorio nagusiak
2. Ondorio nagusietatik proposamen zehatzetara
3. Beken hainbat atal gure oharrekin. Gazteluma, (H)ilbeltza, Igartza, Iñaki Arregi beka, Juan San Martin Beka, Koldo Mitxelena beka, Santi Onaindia beka, Tene Mujika beka, Eusko Jaurlaritzaren literatura sortzeko bekak.

1

ATERA DITUGUN ONDORIO NAGUSIAK

1. Bekek arauetan eskaintzen duten diru kopurua osorik hartzen du bekadunak Gipuzkoan: "kopuru osoa" aipatzen da maiz, Ogasunak atxikipenik gabekotzat hartzen dituelako bekak probintzia horretan, Nafarroan bezalaxe. Jakin behar genuke berdin gertatzen den Bizkaian (Santi Onaindia) eta Iparraldean (Gazteluma)
2. Zuzenean edo zeharrez, bekek bere egiten dute argitalpena, baina inoiz ez dute eransten argitalpen kontratua. Bekadunak ez daki zer ari den sinatzen arau hori onartzearekin.
3. Elkar argitaletxeak publikatzen dituen beken arauetan (Gazteluma, Igartza, Tene Mujika) garbiki adierazten da idazleak ohiko moldean eskuratuko dituela egile eskubideak. Ez horrela gainerakoetan.
4. Igartza bekak zergetan eta segurtasun sozialarekiko betebeharreran zorrik ez izatea eskatzen dio bekadunari, kobratuko badu.

5. Argitaratzeko eskubidea bereganatzen duten sari edo lehiaketetan gertatzen den bezala, umea garbi, orraztu eta dotore jantzia kaleratuko ote duten zalantzan geratzen da gurasoa. Eskubide moralak ere galtzen ditu: ez du jakingo zenbateko tirada egingo duten, ez du iritzirik eman ahal izango azalaz, diseinuaz, maketazioaz, letra tipoaz, lerroartekoaz...
6. Eskubideok galtzeak dakartzan ondorioetako bat dugu inolako kontrolik ez edukitzea zabalkundean ere. Alegia, liburuak behar bezalako promoziorik eta zabalkunderik ez izatea.
7. Argitaratzeko epeak batzuetan urte eta erdi izaten dira, besteetan urtebete, batean sei hilabetekoa.
8. (H)ilbeltza bekak bi diru emaile ditu: Baztango Udala eta Txalaparta argitaletxea, erdi bana osatzen dute 6.000 euroko kopurua, halaxe zegoen idatzia araudiaren sarreran, orain arte behintzat(2018). Lerro batzuk geroago Txalapartaren zatia egile eskubideen aurrerapen gisa emana zela argitzen zen: egileak berak finantziatzen zuela bekaren erdia, euskara garbian esanik. Eta egile eskubideen kitapenean egin ohi den bezala, 3.000 euroko horri zegokion atxikipena egiten zitzaion: egundaino ez da, beraz, 6.000 euroko beka izan. Gaurgoitik ez dakigu. Aurtengo deialdian (2019) ez dago horren gaineko zehaztasunik. Seinale ona, ausaz.

2

ONDORIO NAGUSIETATIK PROPOSAMENEN ZEHATZETARA

1. Egile eskubideak idazleak liburuaren gainean dituen eskubide moral eta ekonomiko unibertsalak izanik, ez dira kengarri ez ukagarri: beken dirua ezin liteke izan egilearen mailegu baten truke. Bekadunak argitalpenaren egile eskubideen jabe izan behar du beka guztietan, eta urtero kitatu behar zaizkio ohiko edizioetan egiten den bezala.
2. Arauekin batera, argitalpenaren kontratua erantsi behar du bekaren antolatzaileak deialdi guztietan (edizioa bere gain hartzen badu, bistan da).
3. Barneratu behar dugu egile eskubideak ez direla ekonomikoak bakarrik, moralak ere badirela (etikoak eta estetikoak), gure lanak merezi duela edizio txukun, dotore eta eskurako zein bistarako atsegina

- izatea.
4. Argitaratzeko epea, 6 (sei) hilabetekoa izango da lana entregatuz geroztik.
 5. Arauak argi eta kopuruak zehatz adierazi behar zaizkigu.
 6. Beken arauetan, oro har, antolatzaileek ez dute inolako konpromisurik hartzen: dirua eman eta liburua kendu, hortik aurrerakoaz ez dute betebeharririk ikusten. Aldatu behar da jarrera hori, liburu bat publikatzea ardura handia da.
 7. Egileak ez du zintzotasun agiriak erakutsi beharrik literatur merituz dagokion dirua jasotzearen.
 8. AHOLKUA bekaren batera aurkezteko asmoa duzuenoi: era guztietako argitasunak eskatu behar dituzue (Nori eskatzen zaizkio zehazki, non eskatzen dira, zein leihatiletan? Edo leihatila bat egongo da LANARTEAN horretarako) gero zaputza hartu ez dezazuen, bereziki kopuru garbia zenbatekoa den eta editorialaren kontratua nolakoa den (aldez aurretik jakin behar duzue zer sinatu beharko duzuen). Kontsultatu LANARTEAN, galderarik xumeenak ere ikasiagoak egingo gaitu denok.

3

BEKEN HAINBAT ATAL GURE OHARREKIN

GAZTELUMA

Elkar

Bi urtetarik behin antolatuko da eta 3.000 euroko dirutza emanen zaio, epaimahaiak hautatuko duen eleberria edo ipuin bildumaren idazleari ondorengo oinarrien arabera...

Hautatuko den egitasmoaren idazleak delako diru-kopuruaren erdia, epaimahaiaren erabakia jakinaraztean eskuratuko du, eta beste erdia idazlana argitaratzean.

Lagundua izan den idazlanaren jabegoa egilearena izanen da.

Alabaina, lan horrek ezingo du beste nehongo diru-laguntzarik edo saririk eskuratu, ez aitzinetik ezta ondoritik ere, argitaratu osteko sariak izan ezik.

Elkar argitaletxeak 2020ko Sarako azokarako argitaratuko du idazlana "GAZTELUMA" sailean. Bestalde, idazleak bere egile eskubideak ohiko moldean eskuratuko ditu.

Epaimahaiaren erabakiak onartu beharrekoak dira, bai idazlearen bai eta antolatzailearen aldetik.

Kopurua garbi jasoko duela bekadunak ulertzen da.

Publikatzen duenak egile eskubideak ordaintzea guztiz logikoa da.

Antolatzaileek epaileek erabakitakoa onartu behar dutela adieraztea, ez dago alferrik.

(H) ILBELTZA
Baztango Udala Txalaparta

Baztango Udalak (H)ILBELTZA elkarte eta Txalaparta argitaletxearen laguntzarekin, euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko asmoz, HILBELTZA BEKA proposatzen du. 2019ko deialdiak sormenezko lanak sarituko ditu.

Deialdi honi 6.000 € esleituko zaizkio, Udalaren 2018ko aurrekontu luzatua 2019. Urtera "1-3350-4890000 EUSKARA DIRU-LAGUNTZAK" kontusailaren kargura 3.000,00 € eta beste 3.000,00 € Txalaparta argitaletxearen kargu.

Lagin irabazleari 3.000 € emanen zaizkio hasiera batean (2019ko ekainean) eta idatzia akitzerakoan bertze 3.000 €

Deialdi hau 2019koa da, ez dakigu nola funtzionatuko duen, ez baitu askorik argitzen.

Orain arte behintzat, lehen 3.000 euroak, udalarenak, osorik hartzen zituen bekadunak, baina bigarren zatikoak ez ziren 3.000 izaten: Txalapartak egile eskubideen aurrerapen gisa jartzen zituen (idazlea mailegu emaile).

1. Aurreratutakoa errekuperatzeko asmoa agertzen du Txalapartak, eta logikoa dirudi... baldin beka emaile gisa azalduko ez balitz. Eskubideen aurrerapena egilearen dirua denez (salmentak kopuru horretara iritsiko ote diren, editorialaren talentuaren araberakoa izango da), urtean urteko bekadunak (ere) azaldu behar luke beka emaile gisa. Absurdua? Logikoa!
2. Egile eskubideak izanik, atxikipena egiten zaio bekadunari. Ez dute beste 3.000 euro kobratu izan, 2.550 euro baizik.

Beraz, hainbat sari edo lehiaketatan gertatzen den bezala, antolatzaileek kopuru biribil bat ipintzen dute sariaren izenaren ondoan, baina ez da hori izaten

kopuru erreala.

Eskariarekin batera aurkeztu beharko dute:

d) Laguntza zein banku-kontutan jaso nahi duen eta hori eskatzailearen izenean dagoela ziurtatzen duen banku-etxearen agiria.

Behartuak al gaude banku-etxe batean bizitzera?
Ezin ote liteke txeke bitartez edo antzeko agiriren batekin egin? Zein da arazoa?

Idazlana argitaratzen bada udalari 10 ale dohainik eman beharko zaizkio.

Deialdian parte hartzen dutenek horri buruzko arauak oro onartuko dituzte eta men eginen diete Baztango Udalak hartzen ahal dituen erabakiei; epaia apelaezina izanen da. Lehiaketaren oinarriak ez betetzeak lehiakidea kanporatzea ekarriko du berekin. Txalaparta argitaletxeak argitaratuko du idazlana. Epaimahaikoek onespena ematen dutenetik sei-zazpi hilabeteko epean karrikaratu beharko da liburua, eta bertan, bekaren aipamena egingen da nahitaez.

Eskertzekoa Udalaren jarrera apala.

Argitalpen kontratua erakutsi behar lukete, zertara konprometitzen garen jakin dezagun: zenbat urtez ustiatzeko eskubidea Txalapartak? Zenbat hizkuntzatan? Eta abar luze bat.

Argitaratzeko epea ere interesgarria, abusurik gabea eta liburuaren onerako guztiz.

IGARTZA

Beasaingo Udala CAF Elkar

Bekaren diru kopurua 6.000,00 eurokoa da, eta Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak 2019ko martxoaren 13an sinatutako hitzarmenaren arabera, entitate hauek ordainduko dute: CAF enpresak: 4.000,00 €, Beasaingo Udalak: 1.000,00 €, Elkar argitaletxeak 1.000.00 €.

Ordainketa modu honetan egingo da:

3.000,00€, irabazle izendatu bezain laster (2.000,00€ CAFek, 500,00€ Udalak eta 500,00€ Elkarrek). 3.000,00€, idazlana amaitu eta entregatutakoan eta epaimahaikoek onespena emandakoan (2.000,00€ CAFek, 500,00€ Udalak eta 500,00€ Elkarrek), aldeztu aurretik zerga eta gizarte segurantzaren betebeharrak eguneratuta egotearen agiriak aurkeztuta.

Jasotako idazlanaren jabetza egilearena izango da. Alabaina, lan horrek ezingo du beste inongo beka edo saririk jaso, ez laguntzaren aurretik ez eta ondoren ere, argitaratu osteko sariak izan ezik. Elkar argitaletxeak argitaratuko du idazlana eta egile-eskubideak ohiko moduan ordainduko dizkio egileari. Epaimahaikoek onespena ematen dutenetik sei hilabeteko epean kaleratu beharko da liburua, eta bertan, bekaren aipamena egingo da nahitaez.

Horra eredu on bat kopuruei dagokionez eta bekadunak dirua nola eta norengandik jasoko duen adierazteko, inolako ustegabekorik gabe: "ordainduko" aditzak behartzen ditu.

Alabaina, zertara dator "zerga eta gizarte segurantza behebeharretan eguneratua" egon beharra beka jaso ahal izateko? Ez da horrelakorik ageri beste ezein bekatan.

Publikatzen duenak egile eskubideak ordaintzea guztiz logikoa da.

IÑAKI ARREGI BEKA
UEMA

Proiektuaren zein azken emaitzaren jabea egilea edo egileak izango dira. Hala ere, lana argitaratzeko, ustiapetzeko eta hedatzeko eskubideak UEMArenek izango dira lehen bi urteetan.

Baldintzak zehaztu behar dira (kontratua), ez baitago batere argi noraino heltzen den egilearen jabetza.

Eskubide horiek ez dira bi urterako izango, urte baterako baizik.

JUAN SAN MARTIN beka
Eibarko Udala

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak burutu ondoren: Kopuru osoaren %40 beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan. Kopuru osoaren %20 beka ematen zaionetik 9 hilabetera, horretarako egingo den lanaren eta egingo duenaren azalpen txostena aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren. Gainontzeko %40a bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren

Lanaren jabea Eibarko Udala izango da. Udalak beretzat gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez.

Kopuru osoa, alegia, atxikipenik gabe.

Lanaren jabea idazlea da beti. Bekaren antolatzaileak eskubide batzuk eskuratzen ditu obraren gainean, epe jakin baterako. "Lanaren jabe" bekaren antolatzaileak bihurtzeak ez dio batere onik egiten edizioari: osoki edo partzialki publikatzea (Egilearen baimenik gabe, "partzialki"? Nork erabaki du zer? Zergatik? Zertarako? Non?), erreproduzitzea (Zenbat? Zenbat aldiz? Non?), argitaratzea (Duintasunez?), plazaratzea (hobe "Euskal Herriko liburudendetan banatzeko ardura"?)

KOLDO MITXELENA beka
Errenteriako Udala

Lanen jabea Errenteriako Udala izango da. Udalak berarentzat gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez, lehentasunez Udako Euskal Unibertsitatearekin, egoki deritzon. Beti ere, lanaren egilea edo egileak aipatu beharko ditu.

Jabetza galdu egin behar luke epe adostu batean publikatzen ez badu.

Eskubidearen epea zehaztu behar da, 6 hilabeteren barruan argitaratu beharko du.

Harrigarria egiten zaigu hirugarren esaldi azpimarratua, egilearen izena aipatu beharko duela; izan ere, horren ezean, lan anonimo bat izango litzateke.

SANTI ONAINDIA beka
Amorebieta-Etxanoko Udala Labayru

Lanaren jabea egilea izango da. Ametx Erakunde Autonomoak beretzat gordeko du

ikerketa-lanaren argitalpen osoa edo zatikakoa egiteko lehenengo eskubidea.
Horrela eginez gero, bekadunak uko egingo dio egile-eskubideak jasotzeari.

Argitalpena egiteko lehenengo eskubidea izango du,
baina 6 hilabete eta urte beteren buruan. Hortik gora,
galdu egingo du.

Aipatu dugun bezala, bekadunak ez dio uko egingo egile
eskubideak jasotzeari.

Ametx Erakunde Autonomoak eskubide hau erabili nahi badu (paper-formatuan zein
euskarri informatikoan), jakinarazi egingo dio egileari; lana behin betiko jasotzen
duenean zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean, eta bi urteko epean argitaratu
beharko du.

Lana jasotzen duenean sei hilabeteko epean argitaratu
beharko du.

TENE MUJIKA beka
Zumaiako Udala

Elkar argitaletxeak argitaratuko du idazlana, eta egile-eskubideak ohiko moduan
ordainduko dizkio egileari.

Proposamena:

Zer kontratu mota izango den txertatu behar da,
zuzenean edo esteka baten bidez.

GAZTEEI ZUZENDUTAKO LITERATURA SORTZEKO LAGUNTZAK
IPUIN ETA NOBELA MOTZAK SORTZEKO LAGUNTZAK
Eusko Jaurlaritza

Diruz ongi hornituak dira eta iragarritako kopuru osoa
jasotzen dute hautatuek.

Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen
Euskal Epaitegiari dirulaguntzen fiskalizazio-lanetarako behar duten informazio guztia
ematea.

Honetan ere badugu, beraz, betebehar administratiborik.

Bi fasetan baloratuko dira modalitate bakoitzean aurkezten diren proiektuak. Lehenengo fasean, eskaerek 45 puntu lortu beharko dituzte gutxienez 85etik, hurrengo fasera igarotzeko.

Lehen fasea:

Idazketaren kalitatea	40 punturaino
Gaia lantzeko era	20 punturaino
Sustapena	15 punturaino
Genero ikuspegia	10 punturaino

Hainbat posibilitate dauzkagu 45 puntu ateratzeko:

Idazketaren kalitatea	10 / 40
Gaia lantzeko era	20 / 20
Sustapena	15 / 15
Genero ikuspegia	00 / 10
Idazketaren kalitatea	20 / 40
Gaia lantzeko era	10 / 20
Sustapena	15 / 15
Genero ikuspegia	00 / 10
Idazketaren kalitatea	15 / 40
Gaia lantzeko era	15 / 20
Sustapena	15 / 15
Genero ikuspegia	00 / 10
Idazketaren kalitatea	15 / 40
Gaia lantzeko era	10 / 20
Sustapena	15 / 15
Genero ikuspegia	05 / 10

Ikusten denez, sustapenean 15 puntu lortuta, erraz samar pasa liteke bigarren fasera, irizpide literarioetan kopuru baxuak izan arren. Merkatuari lotua dagoen irizpide horrek garrantzi handiegia dauka (gutxieneakoaren %33'33) sorkuntza sustatzea helburu duen beka batean (sustapeneakoak idazlearenak ez baina

editorearen lanak dira, eta epaimahaiek badute aski ezagutza publikagarria publikaezinetik bereizteko). Koreografia bezalako arte eszeniko bati ematen zaion koefiziente berdina da (15 puntu), hain zuzen. Literaturaren kasuan behintzat, sustapenari emandako koefizienteak literatur irizpidearenak eta genero ikuspegiarenak baldintzatzen ahal dituela uste dugu.

Harrigarria da genero ikuspegia sustapenaren hurrengo izatea, puntuaketarik baxuenarekin.

Generoaz ari garela, "genero ikuspegiaren txertaketa" aipatzen da puntuaketan, baina ez da ezer aipatzen epaimahaiaren osaketaz, ez du genero parekotasuna bermatzen.

Eta ondo legoke epaimahaia deialdiarekin batera jakinaraztea...

Gero iritzi subjektiboak eman beharko dituzten arren, lagungarria izango zaie noski epaimahaikoei irizpide orokor batzuk edukitzea. Dena dela, ondo legoke terminoak zorroztea. "Idazketa" bat izan liteke literaturtasun gutxikoa eta oso kalitate onekoa. Epaimahaikoei badakite horrenbeste, baina komenigarria da arauetan ere literaturaren hizkera tekniko erabiltzea. *Idazkera* eta *Idazketa* ez dira kontzeptu berdinak literaturan (Orotariko Hiztegian bertan ikus liteke biak bereizteko joera aspaldidanik). "Gaia lantzeko era" kontzeptu literarioa da, bai, baina ez dagokio testuaren beraren gorputzari, gaia nondik eta nola erabiltzeko moduari dagokio, eta ez du haren murrizta orekatzen ahal. *Estiloa*, aitzitik, hizkeraren nolakoari dagokio, hizkuntzaren erabilera artistikoari.

34.artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

a) Ondorengo agiri hauen ale bat:

Idazlearen ibilbidea.

Proposamenaren laburpen-fitxa, euskadi.eus webgunean ezarritako ereduaren arabera.

b) Ale anonimo bat, a) apartatuko dokumentuez gain, proiektuaren izenburua baino adierazten ez duena. Horren edukian ez da jaso behar idazlearen inolako erreferentziarik. Erreferentziarik badago, deialditik kanpo geldituko da proiektua.

Suposatzen dugu idazlearen ibilbidea zorro itxi batean bidali beharko dela, erremitean izenik eta helbiderik ipini gabe. Ez legoke gaizki zehaztea.

“Ale” termino bitxia da, ez da oso ulergarria testuinguruan.

“a) apartatuko dokumentuez gain” uler liteke dokumentu haiek ere barruan egon behar dutela. Baina ondoren idazlearen inolako erreferentziarik ez azaltzea eskatzen da.

Hobetu egin behar da testua, arauak zehaztuz eta argitasunak emanaz.

Bukaerako testua sustatzeko plana, argitaratzeari begira: itzulpena, hedapena, booktrailer eta beste ekintza batzuk.

“Bukaerako testua” egileak argitaratzeko ontzat eman duen testua dela ulertzeko gaztelaniazko “texto final”era jo behar izan dugu... “Behin betirako” esamolde jator eta argi askoa da.

Edonola ere, eta 4. artikulua agintzen duena betetzekotan, diruz lagunduko diren proiektuetatik behintzat bik 30 urtetik beherakoek idatzitakoak izana beharko dute, eta behintzat bik emakumeek idatzitakoak.

“behintzat bik”... Arauen testua gaztelaniatik itzuli dela, dudarik ez dago. Baliteke itzulpen automatikoa izatea ere, tarteka.

Bigarren balorazio-fasea: Idazlearen ibilbidea. Guztizko puntuazioaren %15.

Beraz, bigarren fasean zabalduko dira zorro edo plikak, gutxienez 45 puntu lortu dituzten proiektuak zein norena den jakiteko.

Idazlearen ibilbidea...

Lerro labur batean kitatzen da erabakiorra izan litekeen puntuaketaren kontua.

Obra txukun ugari duen egilearen ibilbidea errespetagarria da guztiz, segurtasuna ematen du, lanbidea ondo menderatzen duela frogatua daukanez. Nobela interesgarri bi besterik egina ez den autorearen ere errespetagarria da guztiz, erakutsia du zer edo zer. Nola neurtzen da ibilbidea? Autore gazteek

ibilbide laburragoa dute zaharrek baino. Ibilbiderik gabeko autoreak ere azaldu litezke beketara, proiektu ederrekin eta talentu puska batekin. Endemas, GAZTEEI ZUZENDUTAKO beketan!